


SAR*e***KIN** | 2024
days

Elkarlaneko eremuaren agiria

**EMAKUME
EKINTZAILEEN
agora**



2024ko azaroa



Teresa Laespada

Bizkaiko Ahaldun Nagusiordea eta
Enplegua, Gizarte Kohesioa eta
Berdintasuna Sustatzeko Foru
Diputatua.

Gogoetarako gune hauek aukera ematen digute emakume ekintzaileentzako ingurune egokiagoak lortzeko estrategiarik onenak identifikatzeko. Hemen bildutako esperientziek gure politika publikoak eta gaur egun dauden laguntza-programak aztertzeko aukera ematen digute, baita hobetu beharreko arloak identifikatzeko ere.

Helburua da emakumeek, jatorria edozein dela ere, ekiteko eta aurrera egiteko aukera berdinak izatea gizonekin alderatuta. Eskerrik beroenak parte-hartzaile guztiei zuen ahaleginagatik, interesagatik eta konpromisoagatik. Ideiak elkarbanatzen jarraituko dugu, elkarri ikasiz, eta elkarrekin ekintzailetza-ekosistema bidezko eta orekatuagoa sortzen.

1. AURKEZPENA	4
2. OZTOPOAK 2.1. Egiturazkoak 2.2. Autopertzepzioa, sareak eta kontziliazioa 2.3. Lege-, administrazio- eta finantzaketa-alderdiak 2.4. Prestakuntza eta lagun-egitea	5
3. EGON BADAUDEN OZTOPOAK KUDEATZEKO BALIABIDEAK, GUK AKTIBATZEN DITUGUNAK ETA BULTZATZEN JARRAITU BEHAR DIRENAK 3.1. Prestakuntza eta lagun-egitea 3.2. Administrazio publikoak 3.3. Sareak, loturak eta ekosistemak 3.4. Agerikotasuna eta aintzatespena 3.5. Uste, jarrera eta trebetasun pertsonalak 3.6. Familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egitea	8
4. PROPOSAMENAK ETA ESKAERAK 4.1. Lagun-egitea eta prestakuntza 4.2. Administrazio publikoak 4.3. Lege- eta administrazio-arlokoak 4.4. Finantzaketa 4.5. Agerikotasuna	9
5. ERRONKAK 5.1. Egiturazkoak 5.2. Familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egitea 5.3. Agerikotasuna eta aintzatespena 5.4. Ekintzailetzaren inguruko kultura 5.5. Uste eta jarrera pertsonalak 5.6. Lege- eta administrazio-erronkak 5.7. Prestakuntza eta lagun-egitea 5.8. Digitalizazioa eta bestelako tresnak	11
ANEXO 1. Ondorioak eta erakundeen bateratze-lana	
ANEXO 2. Parte-hartzaileen zerrenda	



Bilbo, 2024ko abenduaren 5a

Agiri hau EmakumeEkin elkarteko kide hauek egin dute Sarekin days 2024rako: Esther Canarias Fernández-Cavada, Izaskun Rama Ramírez, Lucía Bonilla Aberasturi eta Diana Elizabeth Tadeo Villegas. Eta Bizkaiko bederatzi elkarten laguntzarekin: Women Lab Bilbao, Landa XXI, With, IRDAS, MME Mujeres Migradas Emprendedoras, EmakumeEkin, AED Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkartea, UkrainaSOS - Euskrania, PWN.



1. AURKEZPENA

Sarekin Days 2024 izeneko elkarlaneko esparruan, era askotako ekintzailetza-esperientziadun **askotariko emakume-profilek** parte hartu zuten. Hala bada, horien gogoeten joritasuna da askotasun horren isla, eta, hortaz, nabarmendu beharrekoa ez da adostasuna, partaide guztien bereizgarri denari buruzko ikuspegi-trukea baizik; izan ere, guztiek dute ekintzaile izateko esperientzia testuinguru nabariki **patriarkal, etnozentriko, urbanozentriko eta adinkeriazko** batean. Testuinguru horrek desberdinkeria sozial, ekonomiko eta kulturalak eragiten ditu, egiturazkoak eta sistemikoak, eta, ondorioz, diskriminazioak ekiteko orduan.

Esparru horretan, 82 emakumek, hainbat elkartetako kidek –hala nola, IRDAS, Landa XXI, Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarte (AED, gaztelaniazko sigletan), Mujeres Migradas Emprendedoras (MME), Women Lab Bilbao, PWN Bilbao, Ukraina SOS, WITH eta EmakumeEkin– 90 minutuz elkartu ziren gogoeta inspiratzaileak, kritikoak eta propositiboak egiteko, xede honekin: ekosistema ekintzaile berdinzaleagoa eta inklusiboa eraikitzea eta, beraz, bidezkoagoa eta zuzenagoa.

Agiri hau lau gogoeta-ardatz hauetan banatu da: **oztopoak**, oztopo horiek kudeatzeko aktibatzen diren **baliabideak**, etorkizunerako **erronkak** eta gogoetetatik azaleratu diren **proposamenak eta eskaerak**.

Era berean, emakumeek **barrerometro** tresnarekin ekintzailetzan aurkitu ohi dituzten oztopoei buruz egin zuten banakako gogoetaren isla bisuala jaso du agiriak. Ekintzailetza berdinzalea eta inklusiboa izan dadin, oztopo horiek kudeatu eta murriztu behar dira.

Eta eranskin gisa, **lan-mahaien ondorioen iraulketa** eta **bateratze-lana**, eta parte hartu zuten emakumeen **zerrenda**.

2. OZTOPOAK

2.1. Egiturazkoak

Lan-baimena lortzeko eta **tituluak homologatzeko zailtasunak** oztopoak dira emakume migratuek proiektu bati ekin diezaioten, prozesu oso garestiak, luzeak eta, batzuetan, eskuraezinak baitira. Oztopoak dira, halaber, bertako enpresek emakume horien **profesionaltasuna** ez aitortzea, arrazakeria eta **kulturaren gaineko aurreiritziak**.

Gaztelania (ama-hizkuntza ez bada) eta **euskara** ez jakitea oztopoa ere izan daiteke ekiteko.

Emakumeen **zuzendaritza**-gaitasunari eta **genero-rolen espektatibei** buruz dauden **aurreiritziak** oztopoak ere badira emakumeek botere-postuak eskuratu eta proiektuei ekiteko, zehazki, emakume migratuak badira.

Oztopotzat ere jotzen da, **Administrazioetan, arlo publikoan eta botere-guneetan** emakume ekintzaileen errealitateak –batez ere, landa-eremukoen eta emakume migratuen– ordezkaritzarik ez izatea.

Azpimarratzekoa da, halaber, ez dagoela emakumezkoen ekintzailtzaren **erreferentziarik eta agerikotasunik** –emakume migratuei dagokienez ere ez. Kapital ikusezin asko dago. Eredu profesional hegemonikoak gainditu behar dira.



Emakume izateagatik, migratu izateagatik eta landa-eremuko langile izateagatik eragindako diskriminazioei adinkeria gehitu behar zaie, zeinak beste oztopo bat sortzen duen emakume “gazteegia” edo “helduegia” izateagatik, testuinguru jakin batzuetan ez baita profil horiengan fidatzen.

Aurreiritzien eta estereotipoen ondorioz, emakumeen ekintzailtza eta, bereziki, emakume migratuen **zerbitzuen** eremuan sailkatzen da. Nolabaiteko axolagabekaria eta enpatiarik eza antzematen dira erakundeetan emakume migratuei ekintzailtzari buruzko informazioa emateko orduan; halaber, iradoki da erakundeetan ez dagoela haiek informatzeko prestakuntza egokirik.

2.2. Autopertzepzioa, sareak eta kontziliazioa

Eredu patriarkaletik sortutako **autopertzepzioak** “iruzurtiaren sindromea” eragiten du; hots, nork bere burua nahikotzat ez jotzea, merezidun ez dela uste izatea, baliozkotzea kanpoan bilatzera bultzatzea, eta, beraz, oztopo handia da gizonezko lankideak bezain ikusgai izatea erreklamatzeko. Era berean, ekintzailetza mugatzen duten erresistentzia eta jokabide pertsonalak eragiten ditu; erresistentzia eta jarrera pertsonalekin lotutako **uste mugatzaileetara** mugatzen du, hala nola autoexijentziara, arrisku-higuinera, beldurrera, ikusezin bihurtzen duen diskreziora eta erruduntasunera. Diruari buruzko uste mugatzaileak ere nabarmentzen dira, esaterako, gure lanari bidezko prezioa jartzea edo gure lana defendatzea.

Beste oztopo bat **laguntza- eta harreman-sarerik** ez izatea da, batez ere, emakume migratuen kasuan, baita ekintzailetzak berekin ekar dezakeen bakardadea ere. Oztopotzat ere jotzen da sare askok “**burbuila desberdin**” gisa funtzionatzen dutela eta, hortaz, ez dutela elkarren arteko harremanik.

Aurreko oztopoen ildotik, emakume ekintzaile gehienek **lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzen dituzte**. Egiturazko genero-desberdinkerien ondorioz, gehienbat emakumeen esku geratzen da umeak, adinekoak eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko ardura. Erantzukizun horri denbora mugatua gehitu behar zaio, baita emakumeek “dena egin ahal dutelako” ustea ere, eta horiek guztiak gainkarga dakarkie emakumeei. Hala, ondorio hauek aipatu dira: batzuetan, ekintzaile ala ama izatearen artean aukeratu behar izatea, enpresa izatetik autoenplegua izatera igaro behar izatea edo, seme-alaba txikiak zaintzeko eszedentzia eskatzen bada, lan-eremuan ondorio txarrak egongo direla uste izatea. Horrek guztiak oztopatu egiten du ekiten hasi, jarraitu eta ekindakoa sendotzea.



2.3. Lege-, administrazio eta finantzaketa-alderdiak

Nekazaritza eta abeltzaintzako ekintzailetzak garatzeko Europako arautegiak dakarren **burokrazia** oztopo handia da landa-eremuan.

Oztopo ekonomiko hauek adierazi dira: ez dago **prestakuntzarik enpresen tamainara egokitutako** ekonomia- eta kudeaketa-arloetan, ez hasieran ez eguneroko lanean; ez dira ondo ezagutzen **sektorea** edo **merkatua**, batez ere, lan-arloko alderdiak edo alde teknologikoak; ez dira ondo ezagutzen **Administrazio publikoek ematen dituzten laguntzak**, eta zaila da **kredituak** eskuratzea.



Gainera, **dirulaguntzak** lortzeko baldintzek genero-alborapena dute inkontzienteki; adibidez, fakturazio-kopurua edo enplegatu-kopurua oztopoa dira dirulaguntzak eskatzeko, kasu askotan gizonek lideratutako ekintzaileta-gakoetan oinarrituta daudelako, eta horien enpresa-eredua handia ohi da, emakumeek gehienbat ekindako enpresa-eredua baino handiagoa

Beste oztopo bat da **informazio** gutxi dagoela **landa-eremuko ekintzailetzak** eta elikagaiak ekoizteagatiko **bidezko ordainsariak** lege-betekizunei eta gizarte-mailari dagokienez zer dakarren jakiteko.

Lege-kontuei dagokienez, adierazi da **Gizarte Segurantzako kotizazioak** gutxienekoak direla merkataritza eta ostalaritzako mikroenpresetan eta autonomoen artean, eta horiek ez dutela duineko erretiro-pentsiorik bermatzen.

2.4. Prestakuntza eta lagun-egitea

Ekintzailetzarako oztopoak dira, halaber, **maila profesionalean berariazko prestakuntza** gutxi dagoela eta enpresetan ez dagoela lekurik ezberdinak diren eta askotariko esperientziak dituzten pertsonen **ikaste-kurba desberdinetarako**.

Hortxe, beste oztopo bat: komunikazio hobea eta errentagarritasun handiagoa lortzeko **aholkularitza eta laguntza** falta da, ekintzailetza-fasean ez ezik, enpresa abian jarri eta hurrengo faseetan ere. Autoenpleguaren, ekintzailetzaren eta enpresa-idea batek bizi izaten dituen etapa desberdinen artean bereizi da; eta adierazi da **maila handiago** batera igotzeko oztopoak daudela.


Migratuei dagokienez, adierazi da **herrialde eta kultura** bereko pertsonen **koordinazioaren eta laguntzaren** beharra dagoela, baita **kulturarteko** laguntzarena ere, gizarte- eta enpresa-esparruko kulturak ezagut ditzaten.

Landa-eremuko ekintzailetzari dagokionez, **irigarritasun digitalean** dauden oztopoak nabarmendu dira –emakume migratuen artean ere–, eta garraio-, osasun- eta **aisialdi-zerbitzu publikoak eskuratzeko** dauden oztopoak ere.

Así, se combinan **brechas** a nivel económico, social, cultural, de poder y digital.

Hala bada, arlo hauetan daude **arrakalak**: ekonomian, gizartean, kulturean, boterean eta mundu digitalean.

Barrerometro delakoak irudi hau eman du:



Lehen begiratu emanda, jabetu gara emakumeen ekintzailtza berdinzalea eta inklusiboa izatea eragozten duten oztopoak tarteko mailan eta goi-mailan daudela gehienbat.

Goi-mailan, jasangarritasun ekonomikoari dagokion oztopoa nabarmentzen da, eta ondoren, hauek:

- ▶ Zerbitzuak, baliabideak eta finantzaketa eskuratzeko aukera.
- ▶ Iruzurtiaren sindromea, autopertzepzioa eta autoexijentzia (emakume guztiek hartzen dute oztopotzat).
- ▶ Oztopo administratiboak eta legalak.
- ▶ Denbora, gailkarga, “nik dena egin dezaket”.
- ▶ Kontziliazioa eta zainketak.
- ▶ Agerikotasuna.
- ▶ Botere-postuetako ordezkariak.
- ▶ Ez dago aintzatespen profesionalik.

Digitalizazioaren oztopoa goi-mailan, tartekoan eta behe-mailan agertzen da, baita hutsal bezala ere; goi-mailan adierazi duten emakumeak Landa XXI eta IRDAS elkarteetako kide dira.

Inguruan laguntzarik eta erreferentziarik ez izatea ere 4 mailen artean banatuta dago; inguruko babes falta handiagoa da emakume migratuen artean.

Emakume guztiei eragiten dieten oztopoek nabarmen eragiten diete ekintzailtzaren **jasangarritasun ekonomikoari**, emakumeen **bitza duinari** eta **ekintzailtza-ekosistema inklusibo eta zuzenak egoteari**.

3. EGON BADAUDEN OZTOPOAK KUDEATZEKO BALIABIDEAK, GUK AKTIBATZEN DITUGUNAK ETA BULTZATZEN JARRAITU BEHAR DITUGUNAK

Sei kategoria hauetan egituratu ditugu oztopoak kudeatzeko baliabideak: 1. Prestakuntzari eta lagun-egiteari buruzkoak; 2. Administrazio publikoek eskaintzen dituztenak; 3. Sareak, loturak eta ekosistemak; 4. Agerikotasunarekin eta aintzatespenarekin zerikusia dutenak; 5. Uste, jarrera eta trebetasun pertsonalekin zerikusia dutenak; 6. Eta familia, lana eta bitza pertsonala bateragarri egiteari buruzkoak.

3.1. Prestakuntza eta lagun-egitea

- ▶ Ekintzailtzako *mentoring*-a enpresen kudeatzeaz eta sendotzeaz, proiektu bati ekitean ez ezik, abian dagoenean ere.

3.2. Administrazio publikoak

- ▶ Publiko eta pribatuaren arteko lankidetzak eta Administrazio publikoen zeregina.

- ▶ Finantzaketa eta laguntza publikoak eskuratzeko aukera.
- ▶ Programak genero-ikuspegiaren arabera diseinatzea, bai enpresak sortzeko, bai sendotu eta garatzeko.

3.3. Redes, conexiones y ecosistemas

- ▶ Ekosistemak eta elkarteak sustatu edo piztea, sareak eratzea (“gaur hasiko da dena”); gure harreman- eta erreputazio-kapitala eraikitzea. Hauek behar dira: laguntza emozionala eta ikaskuntza partekatzea eta konfiantzazko tokia.
- ▶ Badaude konfiantza ematen duten eta balioztatzea eta lotura ahalbidetzen dituzten ekosistemak, publikoak zein pribatuak.
- ▶ Norberaren lagunen eta aliatuen sarea.
- ▶ Taldea bera da ahalmen handiko aktiboa.
- ▶ Negozio berrietarako bezero eta ezagunen erreferentziak izatea.
- ▶ Ekitaldiak eta *networking*-a egiteko guneak
- ▶ Sareak egituratzen jarraitzea, elkarrekin gogotsuago aurrera egiten dugulako eta elkarrekin aldaketak egiteko ahalmen handiagoa dugulako.



3.4. Agerikotasuna eta aintzatespena

- ▶ Emakumeen sareak agerikoago egitea; beste emakume batzuk adoretuko dituzten erreferentzia gehiago egon dadin.

3.5. Uste, jarrera eta trebetasun pertsonalak

- ▶ Lehenestea, mugak jartzea, ezetz esatea.
- ▶ Jakin-mina, konformismoaren orde; emakume ekintzaileen berezko jakin-mina.
- ▶ Egunean egotea, aldaketetara moldatzea.
- ▶ Bezeroekin eta enpresa edo negozioko langileekin enpatiko izatea.
- ▶ Zintzotasuna.

3.6. Familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egitea

- ▶ Mujeres Migradas Emprendedoras elkarteak “Convivencia en igualdad” izeneko programa du, eta horren bidez, bikotekide, seme-alaba, loba eta lagun minekin lan egiten da uler dezaten emakume ekintzaileok gure buruak prestatzeko astia behar dugula. Gure lanbideetan lan egiterik ez badugu, gure buruak berrasmatu beharko ditugu eta, horretarako, prestakuntza behar-beharrezkoa da. Nork bere burua prestatzea denbora galtzea delako ideia zabalduari buelta eman nahi zaio. Kontzientziatzeko lana egiten dugu ingurune maskulinoan, etxean eta lanbidean denbora ematetik harago doana.

4. PPROPOSAMENAK ETA ESKAERAK

Erronkak jorratzen direnean, proposamenei buruz gogoeta egitera bultzatzen da elkarlaneko eremuan. Proposamenak Administrazio publikoei, beste eragile batzuei, emakume ekintzaileen erakundeei eta emakume ekintzaile berberei zuzenduta daude. Gai hauei buruzko gaiak bildu dituzte: lagun-egitea eta prestatzea; Administrazio publikoen zeregina; alderdi legalak eta administratiboak; finantzaketa; agerikotasuna; eta sinergiak, sareak eta *networking*-a.

4.1. Lagun-egitea eta prestakuntza

- ◆ Berriazko premiak dituzten emakume migratuei egokitutako lagun-egite espezifikoak bultzatzea.
- ◆ Emakume ekintzaile migratuentzako informazio-gida bat sortzea.
- ◆ Toki eta programa sozial gehiago sortzea elkar ezagutzeko, elkarrekin lan egiteko eta gure talentuak esploratzeko.



- ◆ Gizarte- eta enpresa-kultura eta lanbide-jarduna ikasteko programak sortzea: profesional askok, iristean, ez dakite sektoreak nola funtzionatzen duen bertan. Enpresak ezagutzea (industrialak eta bestelakoak), nola funtzionatzen duten eta taldean nola lan egiten duten jakitea edota haien antolaketa-kultura ezagutzea
- ◆ Enpresa-eremuan kulturartekotasunari buruzko prestakuntza ematea: nola lan egin elkarrekin ezberdinak bagara. Enpresak gai horretan prestatzea garrantzitsua da.
- ◆ Landa-eremuko ekintzaitzan prestakuntza eta laguntza ematea: ekintzaitza sendotzeko mentoretza, kudeaketa eta lankidetzak.

4.2. Administrazio publikoak

- ◆ “Leihatila bakarra” sortzea Administrazioan, hauei buruz informatzeko: programak, baliabideak, ekitaldiak... Koordinazio, argitasun eta irisgarritasun handiagoak lortzeko.
- ◆ Baliabide publikoen genero-alborapena berraztertzea.
- ◆ Programa publikoetan genero-ikuspegia txertatzea.

4.3. Legalak eta administratiboak

- ◆ Profesionaltasuna berrestea erraztea.
- ◆ Prozesu administratiboak sinplifikatzea.

4.4. Finantzaketa

- ◆ Emakume ekintzaileentzako berariazko dirulaguntza edo mikrofinantzaketa gehiago sortzea.
- ◆ Ordezkaritza-gastuetarako laguntza ekonomikoak sortzea.
- ◆ Emakume afrikarren ekintzailetzarako inbertsio-funts bat eratzea, maila publikoan, horien ahultasunera eta behar espezifikoetara egokituta. Ez dago kreditua erraz eskuratzeko aukerarik, eta ez dago dirulaguntza publikoetan lehiatzeko gaitasunik. Garrantzitsua da funts inklusiboak eta askotarikoak izatea, emakume horien gaitasunak eta beharrak kontuan hartuko dituztenak.

4.5. Agerikotasuna

- ◆ Kalteberatasun-egoeran dauden pertsonak identifikatu eta errolatzea, kanpaina eraginkorragoak diseinatzeko eta pertsona horiek laguntzak eskura ditzaten.
- ◆ Agerikotasun- eta komunikazio-kanpaina bat sustatzea, prestakuntza-aukerak eta prestakuntza eskuratzeko modua hobeto zabaltzeko.

4.6. Sinergiak, sareak, *networking*-a

- ◆ Unibertsitateekin edota ezagutzazentroekin elkarlanean aritzeko programak sustatzea.
- ◆ Lanbide-heziketako ikastegiekin sareak sortzea, aztertzeke nola egin ditzakegun praktikak edo nola hasi.
- ◆ Erakundeekin ere *networking* gehiago egitea kontzientzia gehiago sortzeko eta agerikoago izateko modua da.



5. ERRONKAK

Zortzi kategoria hauetan banatu ditugu erronkak: egiturazkoak; kontziliazioarekin loturikoak; agerikotasun eta aintzatespenari buruzkoak; ekintzailetzaren gaineko kulturari buruzkoak; uste eta jarrera pertsonalak; legalak eta administratiboak; prestakuntza eta lagun-egitea; eta digitalizazioa eta bestelako tresnak.



5.1. Egiturazkoak

- ▲ Patriarkatuaren arauak deuseztatzea.
- ▲ Tratu-berdintasunean aurrera egitea.
- ▲ Landa-eremuko emakumeen ordezkaritza handitzea.
- ▲ Landa-sektoreko emakumeen lanaren (eta sektore beraren) balioa nabarmentzea, lehen sektoreari egiten dioten ekarpena agerian jartzeko.
- ▲ Landa-eremuko ekintzaileak hiri-eremukoak adina aukera izatea.
- ▲ Kontziliazio egokia lortzea
- ▲ Emakumeon jatorrian eta generoan oinarritutako jarrera diskriminatzaileak deuseztatzea. Gaur egun, erronkak ditugu emakume izateagatik, emakume migratu izateagatik eta emakume beltz izateagatik.
- ▲ Estereotipoak deuseztatzea
- ▲ Politikan partaidetza handiagoa izateko aukera.

- ^ Ordezkatzen gaituzten eta erabakiak hartzen diren tokietan egotea; bestela, ez gaituzte kontuan hartuko.
- ^ Erabakiak hartzen diren tokiak inklusiboagoak izatea sustatzea; hots, irisgarriagoak izan daitezten, horietan egotea gogoko izan dezagun (erakargarriak izan daitezten).
- ^ Gizartea kontzientziatzea kohesionatua izan dadin; gu gehitu edo gizarteratu nahi izatetik haratago, gizarte kohesionatua izan dadin.
- ^ Kanpotik datozen pertsonekin inklusiboagoak izatea.
- ^ Emakumeen independentzia ekonomikoa lortzea.
- ^ Soziala denari balioa ematea: alde ekonomikoa ez ezik, emakumeok egiten dugun lan guztia ere aintzat hartzea. Hori kuantifikatzea ere bada erronka.
- ^ Hizkuntza ezagutzea.

5.2. Familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egitea

- ^ Familia eta lanaren arteko oreka lortzea.
- ^ Kontziliaziotik erantzukidetasunera igarotzea.
- ^ Bizitza pertsonalaren eta familiaren arteko berdintasuna sustatzea. Gure esku dago. .
- ^ Gure ingurune maskulinoan kontzientzia sortzea kontziliatzearen alde.

5.3. Agerikotasuna eta aintzatespena

- ^ Botere-tokiak betetzea.
- ^ Administrazioan ordezkaritza izatea.
- ^ Landa-eremuko emakumeen ekintzailtza agerian jartzea.
- ^ Hedabideen bitartez sentsibilizatzea, emakume ekintzaileen kasuen, kasu arrakastatsuen, adibide inspiratzaileen edota gizartean eta ingurumenean eragin ona dutenen berri onak emanez.
- ^ Ekonomikoki arrakastatsuak izan daitezkeen kasuak sortzea, autoenplegutik haratago joateko erreferentzia direnak eta arrakasta-kasu jasangarriak eta bihozberak izan daitezkeenak.
- ^ Ekintzailtza-aniztasuna agerian jartzea, aniztasuna aintzat har dadin.
- ^ Sektoreak berriz nabarmentzea, haien gainean dagoen irudia eta eraikuntza soziala hobetzea. Sektore feminizatuen etangutxiagok obratzenda. Zainketak diragarrantzitsuena, eta berriz nabarmendu behar dira, balioa izan dezaten teknologiak prozesuak –baina ez pertsonak– ordezkatzen dituen mundu honetan. Etorkizunean aintzatespen bera izan dadin gizarte-mailan.

5.4. Ekintzailetzaren inguruko kultura

- ▲ Ekintzailetza desmaskulinizatzea lanbide-eta balio-erreferentziak izateko.
- ▲ Kultura ekintzailea eta lidergo-eredu berriak bultzatzea.
- ▲ Emakume eta gizonek partekatutako inguruak sortzea.
- ▲ Toki inklusiboagoak sortu eta sustatzea.
- ▲ Teknologikoak ez diren negozio berritzaileak bultzatzea.
- ▲ Hezkuntza-eremuan, txikitatik, benetako ekintzaileekin, kultura ekintzailea sustatzea.
- ▲ Proiektu bati ekitean, autoenpleguaren eta enpresa-proiektu baten artean bereiztea; enpresa-ikuspegia sustatzea.



5.5. Uste eta jarrera pertsonalak

- ▲ Egiten diogunari balioa ematea eta emakume guztiok independentzia ekonomikoa edukitzea.
- ▲ Okerra, hutsegitea desmitifikatzea. Ez dugu perfektu izan behar. Aurrera jarraitu ahal dugu. Erresiliente izan behar dugu.
- ▲ Beldurrak, autosabotejea –nork bere burua oztopatzea– eta iruzurtiaren sindromea kudeatzea.
- ▲ Uste mugatzaileak garaitzea.

5.6. Legalak eta administratiboak

- ▲ Mikroenpresen eta autonomoen Gizarte Segurantzako kotizazioa nola berreskuratu konpontzea, erretiro-pentsio oso txikiak eta, ondorioz, emakume ekintzaileen pobretzea saihesteko. Kotizazio txikiak duineko pentsioetan duen eraginaz jabetzea. Landa-eremuan ere kontuan hartu beharrekoa.
- ▲ Emakume ekintzaileen lana aintzat hartzeko bestelako moduak bilatzea.
- ▲ Oztopo administratiboak eta legalak murriztea, gehiegizkoa baita zama guztien batura.
- ▲ Lan-baimenak lortzeko eta tituluak homologatzeko izapide administratiboak erraztea, ekintzailetza ahalbidetzeko.
- ▲ Test erraz bat asmatzea profesionaltasuna azkar egiaztatzeko, bi urte itxaron beharrean.
- ▲ Profesionaltasuna sektoreka –prestakutnza, medikuntza...– moldatzea sustatzea.

- ▲ Administrazio publikoan “leihatila bakarra” sortzea hauek bideratzeko: argibideak, baliabideak, laguntzak, ekitaldiak...
- ▲ Azken dokumentazioa iritsi aurretik, ekintzaile egiaztatzen duen egiaztagiria ematea.
- ▲ Izapide administratiboak bizkortzea.
- ▲ Dirulaguntzen genero-irizpideak berraztertzea.
- ▲ Finantzaketa eskuratzeko aukera hobetzea.
- ▲ Administrazioaren aholkularitza profesionalizatzea, emakume eskatzaileen profiletara egokitutako informazioa eman dezan, aukerei, baliabideei eta abarrei buruz.

5.7. Prestakuntza eta lagun-egitea

- ▲ Ez dago prestakuntza eta trebakuntza eskuratzeko aukerarik. Kultura ezagutu behar dugu, eta, hizkuntza ez dakigunez, horrek erabat blokeatzen gaitu informazioa eskuratzeko orduan (ekintzailetzari buruz, enpresek nola funtzionatzen duten jakiteko...).
- ▲ Prestatzeak denbora behar du, baita dirua ere; prestakuntza-denbora lan-denboratik, familian egoteko denboratik eta bizitza pertsonaletik kentzea, eta, berriro ere, uko egiteak itzuli egiten dira.

5.8. Digitalizazioa eta bestelako tresnak

- ▲ Digitalizaziorako –neurri batean, agerikotasunarekin lotutakoa– eta adimen artifizialerako trebetasunak eta tresnak eskura daitezen sustatzea. Horretarako, eguneratzea ezinbestekoa da; bestela, ez da ekintzaile gisa behar den agerikotasuna izango.
- ▲ 45 urtetik gorako emakumeen trebetasun informatikoez ikasitako gaitasunik eza murriztea.
- ▲ Zuntz optikoa eta digitalizazioa eskuratzea erraztea, batez ere, landa-eremuan.

I.ERANSKINA

MAHAIEI ONDORIOAK ETA BATERATZE-LANAREN EKARPENAK

OZTOPOAK

WOMEN LAB BILBAO

- Lan-baimenaren falta, tituluen homologazioaren falta.
- Landa-mundua, baliabideei dagokienez.
- Adinkeriak eta sexismoak ez zaituzte aintzat hartzen, generoagatik edo adinagatik.
- Kontziliazio familiarra:
 - “Lan egin”/ekintzaile izatearen ala ama izatearen artean aukeratu beharra.
 - Ekintzailetzaren faseak, ama zarenean: enpresa izatetik autoenplegura.
 - Eszedentziaren ondoren ondorioak datoz.
- Iruzurtiaren sindromea: gure burua ez dugu nahikotzat jotzen, ezta mereziduntzat ere; ez dugu eskua altxatzen gurea dena edo lankide gizonek bezala eskura dezakeguna erreklamatzeko; kanpoko baliozkotzearen zain gaude (tiararen sindromea).
- Ez dago agerikotasunik, ezta laguntzarik edo enpatiarik ere. Bakardadea, ekintzailetzan.
- Ekonomiari buruzko hezkuntza edo prestakuntzarik ezarekin lotutako oztopo ekonomikoak, baita, batzuetan, gure lanari prezio bat jartzeko diruarekin dugun harreman toxikoa ere: kostatzen da bidezko prezio bat jartzea, hura defendatzea...
- Harremanik eta sarerik eza.
- Ez dira ezagutzen Administrazio publikoen laguntzak.
- Ikaste-kurba: ez zaituzte aintzat hartzen ez duzulako esperientziarik.
- Leihatila bakarra.

LANDA XXI

- Burokrazia: bertoko nekazaritzako enpresak Europako zuzentzauek lotesten dituzte, eta horiek ez dute ezberdintasunik egiten ustategien tamainaren arabera, eta horien exigentzia formal, administratibo eta burukratikoen ito egiten gaituzte.
- Eremu batzuk ez daude konektatuta, fisikoki eta digitalki. Zailtasunak daude Wi-Fi edo zuntza izateko.
- Landa-munduak Administrazioetan duen ordezkartza.
- Ez dago lege- eta gizarte-informaziorik.
- Ez dago zerbitzurik landa-munduan: garraio publikoa, osasuna, aisialdia...
- Kontziliazioa eta erantzukidetasuna.
- Adinkeria

WITH

- Ez dago ordezkazarik Administrazioetan.
- Adinkeria: gazteegi eta helduegi izateak oztopoa eragiten du, hainbat testuingurutan ez baita profil horiengan “konfiatzen”.
- “Bestelako burbuilak”: sare askok ez dute elkarrekin konektatzen.
- “Uste mugatzaileak”: erresistentzia pertsonalak eta jarrera pertsonala.
- Ikaste-kurbak: prest al daude erakundeak ezberdinak diren pertsonen ikaste-kurba beren gain hartzeko?
- Ez dira ezagutzen eskuragarri dauden baliabideak – leihatila bakarra.
- Hizkuntzak.
- Agirien homologazioa, prestakuntza eta egiteko moduetara moldatzea.
- Lana aintzat hartzeko bestelako moduak.
- Toki berri batera iristen zarenean, ez duzu sarerik.
- Kontziliazioa, umeak eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzeari dagokionez

IRDAS

- Legeak; hizkuntza-alderdia, hots, hizkuntza jakitea; alderdi kulturalak; oztopo administratiboak (agiriak lortzea).
- Hizkuntza-oztopoei dagokienez, emakume afrikar asko ez dira gaztelaniaz mintzatzen, eta, hortaz, blokeatzen, mugatzen, geldiarazten dituzte enpresa bati ekiteko orduan.
- Ez dago informaziorik, ez dago gidatzen gaituen inor proiektu bati ekitean, nola egin esateko, hobeto uler gaitzaten.
- Kontziliazioa: ekitea eta lan egitea kostatzen zaigu, ez baitugu laguntzarik.

MME MUJERES MIGRADAS EMPRENDEDORAS

- Euskara ez jakiteak dakarkigu euskaraz mintzatzea behar den tokietan aukerarik ez izatea.
- Titulu profesionalak homologatzea prozesu luzea eta garestia da.
- Ez dugu ez gizarte-ingurunerik ez familia-sarerik, eta horrek kontziliatzea eragozten du.
- Estereotipoak: emakumeak, batez ere, emakume migratuak, zerbitzuko langile sailkatzen dira.
- Finantzaketa.
- Izapide administratiboak.
- Harrerarik eza.
- Enpatia falta handia dute erakundeek proiektu bat ekiteko informazioa ematerakoan. Litekeena da informazioa emateko moduari buruzko prestakuntza falta egotea

erakundeetan. Migratuekiko axolagabekeria.

- Arrakala ekonomikoa, arrakala digitala, arrakala soziala.
- Ez dago emakumezkoen ekintzailetzen erreferentziarik, ez dira agerian jartzen –ezta abian dauden emakume migratuen erreferentziarik ere. Kapital asko ez dago ikusgai, ikusezina da.

EMAKUMEEKIN

- Familia, lana eta bizitza pertsonala bateragarri egitea.
- Autoexijentzia eta uste mugatzaileak.
- Feminismo guztia baztertzailatzat jotzea.
- Erreferentziak agerian jarri behar dira.
- Gaur egun, baliabide publikoak: dirulaguntzek genero-alborapena dute, eta hori ez da jakinda egiten. Berrikuntzarako laguntza askoren eta dirulaguntza publikoen beste baliabide batzuen irizpideen arabera, emakume ekintzaileok horietatik kanpo geratzen gara; adibidez, kontratupeko 10 pertsona eskatzen dituzte, eta guk ez dugu kopuru hori. Baliabide publiko horiek berraztertu behar dira.
- Zaila da botere-guneetara, arlo publikora sartzea. Erronka: erabakiak hartzen diren tokiak sortzea, inklusiboagoak izan daitezen, horietan egotea errazagoa izan dadin eta horietan egon nahi izan dezagun.
- Diruari buruzko uste mugatzaileak.–Erronka: egiten diogunari balioa ematea eta emakume guztiok inde-pendentsia ekonomikoa izatea– Eredu profesional hegemonikoak.
- Gizarte-ingurunerik ez izatea, tituluen homologazioa.
- Dirulaguntzak eta horien epeak; enpresa-kudeaketari buruzko prestakuntza, enpresen tamainara egokitua.
- Ez da sektorea edo foku-merkatua ezagutzen; harremanik eza.
- Arrazakeria eta hizkuntza.
- Berriazko prestakuntza eskuratzea.
- Diruari buruzko uste mugatzaileak.
- Creencias limitantes con el dinero

AED Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarte

- Geu gara oztopoetako bat; hots, beldur gara, zuhurrak eta seguruak garelako. Ez gara berehala ausartzen, gizonak bezala –emakumeon berezko arrisku-higuina, eta errudun-ustea–.
- Mikroenpresen eta autonomoen Gizarte Segurantzako kotizazioak, merkataritzan eta ostalaritzan; gutxienekoa kotizatzen delako, eta erretiroa hartzeko garaia iristen denean, arazo handia da, erretiro-pentsioak oso txikiak direlako, eta horrek emakume ekintzaileen pobretzea dakar. Likidezia lehenetsi egiten da, eta gero ez da nahikoa kotizazio hori duineko pensioa izateko. Nola berreskura daitekeen ikusi behar da.

- Merkatua ez da ondo ezagutzen (lan-alderdiak, alderdi teknologikoak...).
- Emakumeek kontziliatu behar dute, umeak eta adinekoak zaintzeko.
- Pixkanakako hazkundera

UkraniaSOS - EUSKRANIA

- Hizkuntza jakitea.
- Tituluen homologazioa.
- Migratuen kasuan, herrialde edo kultura bereko pertsonen koordinazioa eta laguntza. Kulturarteko eremuko pertsonen laguntza, gizarte- eta enpresa-eremuko kulturak ezagutzeko.
- Bertoko enpresek ez dute emakume migratuen profesionaltasuna aintzat hartzen.
- Finantzaketa.
- Aurreiritziak daude emakumeei eta emakume migratuei zuzendaritza-lanpostu bat emateko.
- Harreman-sarea falta da.
- Aurreiritzi nazionalak, kulturalak...
- Genero-rolen espektatibak.
- Elkarlaneko ekonomia.
- Ez dago ez prestakuntza profesionalik ez kudeaketarik.
- Lana eta familia bateragarri egitea.
- Autoexijentzia.

PWN

- Aholkularitza eta laguntza falta dira, enpresa bati ekiteko fasean ez ezik, hurrengo etapetan ere.
- Ekintzaitzaren, autoenpleguaren eta enpresa-ideia baten etapen artean bereizi beharra.
- Prestakuntza profesionala falta da, hasieran eta, batez ere, eguneroko jardueran.
- Aholkularitza eta lagun-egitea, komunikazioa eta errentagarritasuna hobetzeko.
- Garapen profesionala: zure burua saltzeko, zure burua erosi behar duzu lehenengo.
- Komunikaziorik eza negozioren taldeekin eta taldeen artean.
- Kotizazioa – ondorioez jabetzea.
- Lege-aldaketak.
- Oztopo administratiboak murriztu beharra, gehiegizkoa baita zama guztien batura. Dena prest aholkularitzarako; zama murriztea
- Hizkuntza, baliabide gehiago, aintzatespen gehiago, kultura gehiago, ezagutza gehiago.
- Kontziliazioa, umeak eta adinekoak zaintzeari dagokionez.

- Ez dago erreferentziarik, agerikotasuna behar da.
- Iruzurtiaren sindromea, genero-alborapena laguntzei dagokienez.
- Botere-tokietan sartzeko aukerarik eza; diruari buruzko uste mugatzaileak.

Egon badauden oztopoak kudeatzeko BALIABIDEAK, guk aktibatzen ditugunak eta bultzatzen jarraitu behar direnak

WOMEN LAB BILBAO

- ▶ Enpresak kudeatu eta sendotzeari buruzko ekintzailtza mentoring-a, proiektuaren hasieran ez ezik, abian dagoenean ere. Enpresak kudeatu eta finkatzea, proiektuari ekiteko ez ezik, sendotzeko ere.
- ▶ Ekosistemak eta elkarrekin sustatu edo piztea, sareak eratzea: “gaur hasiko da dena”. Gure harreman- eta erreputazio-kapitala eraikitzea.
- ▶ Publiko eta pribatuaren arteko lankidetzak, eta Administrazio publikoen zeregina.
- ▶ Gure harreman- eta erreputazio-kapitala eraikitzen joatea.

WITH

- ▶ Badaude konfiantza ematen duten eta balioztatzea eta lotura ahalbidetzen dituzten ekosistemak, publikoak zein pribatuak.
- ▶ Norberaren lagunen eta aliatuen sarea.
- ▶ Laguntza publikoak.
- ▶ Taldea bera da ahalmen handiko aktiboa.
- ▶ Finantzaketa.
- ▶ Negozio berrietarako bezero eta ezagunen erreferentziak izatea.

EMAKUMEEKIN

- ▶ EmakumeEkin-en sareek hauek dakartzate: laguntza emozionala, ikaskuntza partekatzea, konfiantzazko tokia.
- ▶ Lehenestea, mugak jartzea, ezetz esatea.
- ▶ Programak genero-ikuspegiaren arabera diseinatzea, bai enpresak sortzeko, bai horiek sendotu eta garatzeko ere.
- ▶ Emakumeen sareei agerikotasun handiagoa ematea; beste emakume batzuk adoretuko dituzten erreferentzia gehiago egon dadin.
- ▶ Sareak eratzen jarraitzea, elkarrekin aurrera egiten dugulako eta elkarrekin aldaketak egiteko gai garelako

AED Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarteak

- ▶ Jakin-mina, konformismoaren orde. Ekintzaileen berezko jakin-mina.
- ▶ Eguneratzea, aldaketetara moldatzea.
- ▶ Bezeroekin eta enpresa edo negozioko langileekin enpatiko izatea.
- ▶ Zintzotasuna.

MME MUJERES MIGRADAS EMPRENDEDORAS

- ▶ Kontzilioari dagokionez, Mujeres Migradas Emprendedoras elkarteak “Convivencia en igualdad” izeneko programa du, eta horren bidez, bikotekide, seme-alaba, loba eta lagun minekin lan egiten da uler dezaten emakume ekintzaileok gure buruak prestatzeko astia behar dugula. Gure lanbideetan lan egiterik ez badugu, gure buruak berrasmatu beharko ditugu eta, horretarako, prestakuntza behar-beharrezkoa da. Nork bere burua prestatzea denbora galtzea delako ideia zabalduari buelta eman nahi zaio. Kontzientziazeko lana egiten dugu ingurune maskulinoan, etxean eta lanbidean denbora ematetik harago doana.

PROPOSAMENAK / ALDARRIKAPENAK

UkraniaSOS - EUSKRANIA

- ◆ Toki eta programa sozial gehiago, elkar ezagutzeko, elkarrekin lan egiteko, gure talentuak esploratzeko.
- ◆ Gizarte- eta enpresa-kultura eta lanbide-jarduna ikasteko programak sortzea: profesional askok, iristean, ez dakite sektoreak nola funtzionatzen duen bertan. Enpresak ezagutzea (industrialak eta bestelakoak), nola funtzionatzen duten eta taldean nola lan egiten duten jakitea edota haien antolaketa-kultura ezagutzea.
- ◆ Profesionaltasuna berrestea erraztea.
- ◆ Ekitaldiak eta networking-a egiteko tokiak.
- ◆ Enpresa-arloan kulturartekotasunean prestatzea. Nola lan egin elkarrekin ezberdinak bagara. Garrantzitsua da enpresak gai horretan prestatzea.
- ◆ Prozesu administratiboak sinplifikatzea.

LANDA XXI (erronkak izan daitezke)

- ◆ Zuntz optikoa eta digitalizazioa eskuratzea erraztea.
- ◆ Gizarte Segurantzako egungo pentsio-sistema. Landa-munduan ere kontuan hartu beharrekoa: kotizazioa ez ezik, pentsioaren kopurua ere.
- ◆ Landa-munduko emakumeen ekintzailera agerian jartzea.
- ◆ Landa-gaiari eta ekintzailtzari buruzko prestakuntza eta laguntza.
- ◆ Landa-eremuko ekintzailtzak hiri-eremukoak adina aukera izatea.
- ◆ Ordezkaritza-gastuetarako laguntza ekonomikoak

- ◆ Landa-eremuko emakumeek ordezkari handiagoa izatea.
- ◆ Lehen sektorea nabarmentzea.
- ◆ Mentoretza, kudeaketa eta lankidetzako proiektuak sendotzeko

EMAKUMEEKIN

- ◆ Emakume ekintzaileentzako dirulaguntza edo mikrofinantzazio gehiago.
- ◆ Emakume migratuentzako berariazko laguntza, beren premia espezifikoetara egokituta; berariazko gidak, leihatila bakarra.
- ◆ Sortuko diren programek genero-ikuspegia izan dezaten

IRDAS

- ◆ Emakume afrikarron ekintzailetzarako inbertsio-funts bat eratzea, maila publikoan, gure ahultasunera eta behar espezifikoetara egokituta. Ez dugu kreditua erraz eskuratzeko aukerarik, ezta dirulaguntza publikoetan lehiatzeko gaitasunik ere. Funts inklusiboak eta askotarikoak izan beharko dira, emakumeon gaitasunak eta beharrak kontuan hartuko dituztenak.
- ◆ Prestakuntza ezagutarazteko kanpaina sortzea, ideiak proposatzeko dituenak.
- ◆ Kalteberatasun-egoeran dauden pertsonak identifikatu eta errolatzea, kanpaina eraginkorragoak diseinatzeko, eta pertsona horiek laguntzak eskura ditzaten.
- ◆ Unibertsitateekin elkarlanean aritzeko programak, edo antzekoak

MME MUJERES MIGRADAS EMPRENDEDORAS

- ◆ Emakume migratu ekintzaileentzako gida bat sortu nahi dugu, ez baitago horrelakorik. Harreragunera jo dugu.
- ◆ Lanbide-heziketako ikastegiekin sareak sortzea, aztertzeke nola egin ditzakegun praktikak edo nola hasi.
- ◆ *Networking* jarduera gehiago, erakundeekin ere, ia beti emakumeekin egiten baititugu, eta moldatu egiten baikara. Erakundeekin egiten badira, kontzientzia gehiago sortzeko eta agerikotasun handiagoa izateko aukera egongo da.

PWN

- ◆ Ekintzailetza-etapen bizitza
- ◆ Autoenpleguaren eta ekintzailetzaren artean bereiztea.
- ◆ Proiektuaren hasieran eta ondoren aholkularitza espezializatua sustatzea, ekimen txikiak errentagarriak izan daitezkeen edo tamainagatik ekiteak merezi duen aztertzeke.
- ◆ Baliabideak eta ezagutza, teknologikoa ere, eskuratzeko aukera.

- ◆ Umeak eta adinekoak zaintzeko kontzilizazioa, eta laguntza-sareak hobetzea.

RETOS

WOMEN LAB BILBAO

- ⚠ Digitalizazioan –neurri batean, agerikotasunarekin lotutakoa– eta adimen artifizialean eguneratu beharra dago; bestela ez dugu ekintzaile gisa behar dugun agerikotasuna izango. Prestatzea ere: prestatzeak denbora behar du, baita dirua ere; prestakuntza-denbora lan-denboratik, familian egoteko denboratik eta bizitza pertsonaletik kentzea, eta, berriro ere, uko egiteak itzuli egiten dira.
- ⚠ Tratu-berdintasunean aurrera egin beharra (ikusezintasunaren adibidea).
- ⚠ 45 urtetik gorako emakumeen trebetasun informatikoez ikasitako gaitasunik eza murriztea.
- ⚠ Landa-eremuko lanaren balioa nabarmentzea, baita landa-eremua bera ere; emakumezkoen profilak azpimarratzea.
- ⚠ Patriarkatuaren arauak deuseztatzea, ekintzailatza desmaskulinizatzea.
- ⚠ Okerra, hutsegitea desmitifikatzea.
- ⚠ Landa-eremuko lanaren balioa nabarmentzea, emakumezkoen profilak azpimarratzea.

UkraniaSOS - EUSKRANIA

- ⚠ Tituluak homologatzeko prozesua erraztea eta test erraz bat asmatzea profesionaltasuna azkar egiaztatzeko, bi urte itxaron beharrean.
- ⚠ Profesionaltasuna sektoreka moldatzea: prestakuntza, medikuntza...
- ⚠ Agerikotasuna eta hedabideak: hedabideen bitartez sentsibilizatzea, emakume ekintzaileen kasuen, kasu arrakastatsuen, adibide inspiratzaileen edota gizartean eta ingurumenean eragin ona dutenen berri onak emanez.
- ⚠ Beldurrak, autosabotajea eta iruzurtiaren sindromea gainditzea; gainditzea baino, kudeatzea.
- ⚠ Kontziliazio egokia lortzea.
- ⚠ Administrazioan leihatila bakarra sortzea laguntzeko, aholku emateko, informazioa emateko.

LANDA XXI

- ⚠ Ordezkaritza Administrazioan

WITH

- ⚠ Ekintzailatza desmaskulinizatzea, emakumezkoen erreferentzia profesionalak eta balioak

izateko.

- ▲ Emakumeek eta gizonek partekatutako inguruneak sortzea.
- ▲ Kultura ekintzailea eta lidergo-eredu berriak.
- ▲ Ekonomikoki arrakastatsuak izan daitezkeen kasuak sortzea, autoenplegutik haratago joateko erreferentzia direnak eta arrakasta-kasu jasangarriak eta bihozberak izan daitezkeenak.
- ▲ Teknologikoak ez diren negozio berritzaileak bultzatzea.

IRDAS

- ▲ Arrazakeria. Arrazagatik eta emakume izateagatik diskriminatzea.
- ▲ Estereotipoak deuseztatzea.
- ▲ Emakumeon jatorrian eta generoan oinarritutako jarrera diskriminatzaileak deuseztatzea. Gaur egun, erronkak ditugu emakume izateagatik, emakume migratu izateagatik eta emakume beltz izateagatik.
- ▲ Erronka legala eta administratiboa: zaila da ekin ahal izateko tituluak homologatzea, lan-baimenak lortzea.
- ▲ Prestakuntza eta trebakuntza eskuratzeko aukerarik eza. Kultura ezagutu behar dugu, eta, hizkuntza ez dakigunez, horrek erabat blokeatzen gaitu informazioa eskuratzeko (ekintzailetzari buruz edota enpresek nola funtzionatzen duten jakiteko...). –ELKARTEAN ALDERDI HORI AHAL DUGUN MODUAN JORRATZEN ARI GARA.

MME MUJERES MIGRADAS EMPRENDEDORAS

- ▲ Politikan parte hartzeko aukera gehiago izatea.
- ▲ Ordezkatzen gaituzten eta erabakiak hartzen diren tokietan egotea; bestela, ez gaituzte kontuan hartuko.
- ▲ Ekintzaile gisa egiazta gaitzaten, azken dokumentazioa lortu aurretik. Izapide administratiboak bizkorragoak izatea.
- ▲ Gizartea kontzientziatzea kohesionatua izan dadin; gu gehitu edo gizarteratu nahi izatetik haratago, gizarte kohesionatua izan dadin.
- ▲ Laguntza gehiago izatea.
- ▲ Kontzientzia, gure ingurune maskulinoan. Kontzilizazioa.

EMAKUMEEKIN

- ▲ Familia eta lanaren arteko oreka lortzea.
- ▲ Kontziliaziotik erantzukidetasunera igarotzea.
- ▲ Uste mugatzaileak deuseztatzea.
- ▲ Kultura ekintzailean kontzeptu feminista berrinterpretatzea.

- ^ Dirulaguntzen genero-irizpideak berraztertzea.
- ^ Botere-tokiak betetzea.
- ^ Ingurune inklusibogoak sortu eta sustatzea.
- ^ Egoera legezatzeko eta tituluak homologatzeko izapide administratiboak erraztea.
- ^ Finantzaketa eskuratzeko aukera hobetzea.
- ^ Kanpotik datozen pertsonekin inklusiboago izatea. Emakumeon independentzia ekonomikoa.

AED Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarte

- ^ Soziala denari balioa ematea. Ekonomia soziala: alde ekonomikoa ez ezik, emakumeok egiten dugun lan guztia ere aintzat hartzea. Hori kuantifikatzea ere bada erronka.
- ^ Hezkuntza-eremuan, txikitatik, kultura ekintzailea sustatzea.
- ^ Negozio bati ekitean, autoenpleguaren eta enpresa baten proiektuaren artean bereiztea; enpresa-ikuspegia sustatzea.
- ^ Bizitza pertsonalean eta familian berdintasuna sustatzea. Gure esku dago. Eta horrekin lotuta, oztopoetako bat geu garelako ideia.
- ^ Leihatila bakarra hauek bideratzeko: informazioa, baliabideak eta ekitaldiak. Gaur egun, sakabakatuta daude.
- ^ Administrazioaren programen informazio pertsonala eta profesionala jasotzeko atxikita egotea (hori ez dut ulertzen). Aholkularitza profesionalizatzea.
- ^ Erantzukidetasuna.

PWN

- ^ Txikien eta ezberdinen ekintzailtza-aniztasuna agerian jartzea; aniztasunak ere aintzat har daitezen.
- ^ Sektoreak berriz nabarmentzea, haien gainean dagoen irudia eta eraikuntza soziala hobetzea. Sektorefeminizatuenetangutxiagokobratzenda. Zainketakdiragarrantzitsuena, eta berriz nabarmendu behar dira, balioa izan dezaten, teknologiak prozesuak –baina ez pertsonak– ordezkatzan dituen mundu honetan. Etorkizunean aintzatespen bera izan dadin gizarte-mailan.
- ^ Tratu-berdintasuna.
- ^ Ez imitatzea.
- ^ Hizkuntza.
- ^ Kontziliazioa.
- ^ Digitalizazioa.
- ^ Okerra, hutsegitea, desmitifikatzea. Ez gara perfektu izan behar, aurrera jarrai dezakegu. Erresiliente izatea.
- ^ Hezkuntza-eremuan ekintzailtza txertatzea benetako ekintzaileen eskutik.